Mendizaleen literatura

Guziok arduratzen garan literatura normalaz gainera, gaztaroko ekintzekin ahaztu ezinik, mendizaleen literatura ere ahal dudan neurrian urbildik jarraitzea guztatzen zait eta gauza ederrik idazten da kirol atsegin horretan. Gai hontaz, begirada arin batez, zenbait ohar egin nahi nituzke gaurko hontan. Uste dut merezi duela.

Oraindik emozioz gogoratzen dut Peter Habeler-en liburua, Everest gailurrera bakarrean lortu zuen garaipenez. Zein ederki kontatzen duen zenbait urte aurretik gertatzen hasi zen ibili hura, guri aintzikatik gizonaren ahalmenetatik zerbait haruntzagokoa iduritzen zitzaiguna. Buruz jokatuz noraino heldu ditzaken, hor ikus genezake irakurgai eder baten bidez. Igaz nere eskuetan izan nuen irakurgairik bikainenetakotzat gogoratzen dut Habeler-en obra.

Gure mendizaleak, historiaz ez dute atzerritarren zehaztasunik, ezta ere, ez dute erakusten tradizio zaletasun gehiegirik. Duela urte guti kostata lortu genuen ezkutu hura (goian mendizale baten irudia eta azpian haritzostozko gurutza edo aspa tarteka letrak jarriaz), badirudi kargu aldaketekin bazterdu dela Euskalerriko Mendizaleen Federazioaren urre eztaietan birlortu zena. Historia zintzo ez gordetzearen agiritzat hor dugu ***Pyrenaica*** *aldizkariaren igazko ale bateko lana (122 zenbakian "Atxarte, Escuela de Escalada" deritzana). Lan ona izanik ere, zenbait igoeratan badirudi birarkitze harrigarriak egin dituela. Lehenagotik igoak ziren paretak geroagokoen baitan jartzen dituela. Eskaladoreak izan dituzten elkarteetako boletin edo aldizkariak zerbait aztertzea aski zuten nori berea emateko.*

Literaturaz gainera, mendizaleen liburuak, albun ederrak izateko posibilitateak dituzte paisajeak hortarako prestatzen direlako eta fotografia kamarek ekarri duten aurrerakuntzegatik. Gainera, inprimategien abantailak ere ez dira txantxetakoak. Liburu eredugarrien artean bat aipatzekotan, historia ere zehatz jasotzen duena, Jose Mari Azpiazu azpeitiarraren ***Alpinismo Español en el Mundo*** *dugu gogoangarrienetakoa. Liburu honekin ere ez dago aspertzerik, ongi dokumentatutako irakurgai atsegina, argazkiz ongi jantzia eta noiz nahi konsultatzeko eran egina. Mendizaleentzat ez ezik, normahirentzat liburu egokia.*

Mendizaleen literaturan era guzietako lanak agertzen dira gure egunotan, ez bakarrik munduko mendi handieri buruz inprimatzen diren liburu ederrak, baizik gure mendi apal hoietan egin daitezken ibilaldiz argitalpen arruntak ere bai. Arruntak aurkezpenez, baina mamitsuak barnez. Hala dira Luis Pedro Peña Santiagoren ***Montañas del País Vasco*** *lau tomoak. Gailur, lepo eta mendartez egin daitezken ibilaldiak jasoaz, eta era berean ibilaldi bakoitzaren inguruan arkitu genezazken monumentu, ermita, basarri edo kondairak ere aipatuz. Inoiz, ibili gabe ere ames egin genezake. Igazko apirilean ondo merezia izan zuen Euskadi Zilarrezko Saria. Luis Pedrok, bere lau liburuen bidez, hegalez hegal, Euskal Herriaren geografia erakutsiz garamaz.*

Albun eder bezala, zer esanik ere ez, hor ditugu ***Mendiak*** *direlako tomoak. Lastima da holako lan gareztia burutzean mendi gailurren izenak hobeto ez jasotzea.*

Gure mendizaleen liburu onak aipatzean, nola utzi Felipe Uriarteren ***Buru ilhun hurruntsua?*** *Euskaldunak Everest mendian, hori izan bai da Euskal Herriko mendizaleak beren historiarako lortu duten garaipenik handiena. Peter Habeler-ena geroztik, garaipen horrek zerbait galtzen badu ere, testuz edo idazkeraz bizitasunik etzaio falta. Ongi kontatua da eta bertako argazkiak besteeneri zorrik gabekoak dira. Baina, bestalde, Martin Zabaletaren balentria ere ez zen txikia izan. Josan Artzek euskaratua, Xalbador Garmendiaren orraztapenez, Uriarte beraren gaztelerazkoa baino lehen argitaratu da. Euskarazkoari salketan laguntzeko egingo zutela iduritzen zaigu, zeren bestela norpere buruaren engainagarri bait da.*

Liburu hori, Everest gailurrera igotze soil bat baino gehiago da; lehen partean antolakizunak eta Kathmandu-ra bidaia jasotzen ditu; bigarrenean Xerpa herriaz ari da, ohitura, pertsonaia, sineskera, monastegi eta mendi handien azpia hartu arteko ibilaldi luzea kontatzen ditu; hirugarrenean mendi mendiari loturik munduko gailurrik altuena hartu arte. Eta, han goian, eguzkiak berotzen ez duen lekuan zer zen Martin Zabaleta ber berak kontatuko digu.

Irakurketa horien ondorean nork ez luke bere egingo Lizardiren olerki hura:

Maite ditut gailurrak
argiak ez beste...
Hi, egaztia banintz,
gainik gain nenbilke!

Juan SAN MARTIN

Al margen de la literatura general, para el aficionado al alpinismo, actualmente se producen muchas y buenas obras sobre el deporte montañero. El libro de Peter Habeler, **Victoria en solitario** (Everest, 1978), me resultó una de las lecturas más apasionantes que el pasado año tuve entre mis manos.

Nuestros montañeros, nada tradicionalistas, además de desterrar su primitivo emblema, a veces cometen imperdonables lapsus, tal vez por desconocimiento, o poco respeto a la historia y al rigor científico. Como se detalla en el texto euskériko.

En otras ocasiones, sin embargo, saben producir verdaderas obras maestras, tanto por su [illegible]tación como por las [illegible] que aportan. Para ej[illegible]mos más que record[illegible]lada **Alpinismo Español en el Mundo** del azpeitiar[illegible] piazu.

El alpinismo es [illegible] que se presta a libros [illegible]tes por su narrativa y [illegible]ción de paisajes y c[illegible] la industria gráfica a[illegible] plasmar a la perfe[illegible] que los volúmenes [illegible] atracción a la compra [illegible]sual, además de su [illegible] también se producen [illegible]destas, que sirven [illegible] fáciles excursiones. [illegible] cuatro libros **Montañas del Vasco** de L.P. Peña [illegible] merecedores del Premio de Plata de 1981.

Y, siguiendo los [illegible] montaña, se merece [illegible] mención el volumen [illegible] Uriarte que recoge [illegible] los montañeros [illegible] cima más alta del [illegible] Everest, que culmina [illegible]torioso capítulo [illegible] propio Martin Zabaleta [illegible] canzó la cumbre de [illegible] metros de altura.

Tras estas lecturas [illegible] repetiría con el poeta [illegible] "Amo a las cumbres [illegible] ama la luz. Oh!, s[illegible] jaro, siempre volver [illegible] cima!".

Euskal izenak noraino? Euskaldun-ohiak noraino?

Jakintzaren ikhuspunktutik, izen batzuen koinzidentziak ez dira hau baino gehiago: koinzidentzia hutsak, bainan koinzidentziak ugaritzen direnean, orduan jakintzalari batek zerbait gehiago egon litekela pentsatu behar luke, eta behar bada jakintzako azalpen bat eman behar litzakee hunelako faktuei. Physikak erraiten deraukunez, behin eta berriro errepikatzen diren faktuek ***Lege*** *bat egiten dute.*

Italiaren ifarraldean bidaiatzen duen euskaldun bati bethi nabari izanen zaio, hor agerten diren euskal herri izenen ugaritasuna. Hemen bait dagotza hunelako izenez herri hauk: ***Altzate, Garate, Gallarrate, Belate, Bailate, Bartzola, Arona, Anzola, Aranko, Zumaia*** *(italiarazko orthographiaz: Zumaglia. Halaber italiaraz Bizkaia, Biscaglia erraiten da)* ***Lessona, Orio, Zubiena, Arieta*** *(Harrieta?)* ***Aias, Tolasetxe, Leizeta, Larrun,*** *etaa. Eta egon ere ba dagotza ARNATZ bezalako herri bat, zeinen erran-nahi euskaraz* ***Arrano haitz*** *bait lizateke, eta zeinen atzean gaur egun ere frantsesez* ***"Le Pic de l'Aigle"****, (hau da euskarazko formaren itzulpenaz) mendi bat bait dago. Jakintzalariek aspaldidanik zergatik hoinbertze euskal izenak hemen dagozen ikhertu nahi ukhan dute. Batzuen aburuz Neolithiko epokhan haran hauietan zegozen karroinak, leiak, izotzak eta urhotzak atzera joan zirenean, orduan libro geratzen ziren haranetan Borthuetatik ethorritako populazione batetaz bethe ziren. Ezin erran diteke nortzu ziren, eia* ***ligurak, lebuak*** *edo ta askotan aiphaten diren* ***salatzak,*** *ala heien aurrean ethor ziteken bertze populazione bat.*

Berhain, behar bada, gauza hauietan interese handiago eduk lezaken persona batek gauzak ikhertzenago ba ditu, orduan nabari izanen zaio nola Aosta-Herrialdean, kromañon typoko populazione hori, gaur egunean "mendi garaietako haranetan" bizi den; haranak bere goiko partean bethi zabalagoa bait dira, eta ikhuspegiak eta saroiak hedatuago. Bainan "mendialde ertainean", hau da 500 eta 1000 metroen arteko haranetan, orain ere bertzelako populazione bat bizi da. Goiera huntan azken mende-arte, haranak bethi padurez eta inthez betherik izan dira; beraz hemen bizi izaiteko kondizioneak oso tzarrak ziren. Hunela Neanderthal-typoko populazione zahar hori haraino bultzatu zituzten geroago ethorritako herriek.

Populazione hau bethi probêma latza izan da herrialde hunen gubernarientzat. Hunela izkribu zaharretan bethi "kretino" hauiei buruz mintzo dira. Populazione hunek, orduan, bai eta orain ere, askotan kretinismoaren kharaktêristika gehienak zituzten.

Herrialde hunen mendialde ertainean hion anhitz dira, non askotan 40% eta 100% bait dira herria hauien populazionean. Gaur egunean ere herri hauietako genteak intelligentzia ttipikoa dira, alkoholizaturik dagotza eta heien bizitzaren-luzera gehienetan ez dioa 40 urtheez harantz. Populazione hau ikhusi duen persona batek berehala erranen du, ezen heien aspektuak Neanderthal giza typoaren rekonstrukzioneetan ikhusten diren irudia duela. Beraz hemen galde egin behar deraukogu gure buruari zein den kausa ta zein den effektua. Alkoholizaturik dagozelakotz, hunelako Neanderthal-typoa hal dute, ala Neanderthal ethorkiko azken representantzak direlakotz, bertze lekhuetan giza primitivuekin gerthatzen ohi den bezala, alkoholizatu dira. Askotan bere etxeetan animaleekin kohabitatzen dute, kretinoak direlakotz? ala neanderthalekoak direlakotz?

Kretinismo hunen kausak askotan hok bizi diren isolamendua dela erraiten da, bainan hemen egia erraiten ez dela iruditzen zait, zeren eta haran hauien parthe garaian bizi diren kromañon gizonek askoraz isolatuago bizi bait dira eta hunelako kretinismoa ez dago hor. Geroz hunelako egokerak soilik hunelako ihes-lekhuetan gerthatzen dira, zeren eta haranen eskualde beheratagoetan berriro kretinismoa ez bait dago. Hemen behar daba populazionearen hirurgarren "uhain" bat legoke.

Hemen galde bat egin behar genuke baldin Kromagnon typoko gizonak Alpeetaraino Borthuetatik ethorri ba dira. Borthuetan ere hunelako humanoide primitivuak ere egon dira? Ala Kromagnon arrazaren sortlekhua Borthuak eta Massif Centrala othe dira? Euskalherrian "giza-lehenei" buruzko legendek bethi populazione zaharrena gizon handiak, erraldoiak zire dioskute. Bainan Alpeetan gizon salbaiei buruzko legendek bethi izaiki ttipiskoak izaiteaz populazione primitivua presenatzen deraukute. Agustin Xahok bere "Voyage en Navarre" liburuan kontatzen derauku, nola XVIII mende arte Borthuetan ere, "gizon salbaiak" bizi ziren, bainan Xahoren aburuz ez ziren kretinoak, ez eta ttipiskoak ere. Eta Borthuetan Aurignak epokha danik baldin kromagnon populazione bat bizi ba da, ez hal liteke izan Borthuak, homo sapiens sorthu den herrialdea?

F. KRUTWIG SAGREDO

A toda persona que viaje por el Norte de Italia, especialmente entre el Lago de Como cerca de Milán y el Monte Blanco, si se detiene un poco con ojos euskaristas, notará una tal gran cantidad de nombres vascos, que en muchas ocasiones coincidcen exactamente con otros de Euskalherria, que evidentemente tendrá que deducir que se trata de algo más que una simple coincidencia. Hay pueblos que se llaman: **Altzate, Garate, Arese, Gallarate, Belate, Vailate, Barzola, Arona, Arola, Anzola, Aranko; Zumaglia** [illegible] montés se pronuncia [illegible] **Lessona, Orio, Zubiena** [illegible] (Harrieta?) **Aias, Tolasetxe, Leizeta, La Rune** (Larrun) [illegible] casos como el de [illegible] euskara significaría [illegible] **Aguila,** tras el que [illegible] montaña llamada [illegible] **Pic de l'Aigle"** [illegible] de la forma euskara [illegible] es debida esta gran [illegible] nombres euskaros [illegible] Alpes? No se trata [illegible] caso de una llegada [illegible] épocas modernas. Se [illegible] investigadores, al [illegible] Neolítico, cuando se [illegible] glaciares, estas regiones [illegible] pobladas por gente [illegible] desde los Pirineos [illegible] ron a los Ligures. Sin [illegible] no ser que se trataran [illegible] justamente de esos [illegible] euskaroides.

Si, como parece [illegible] originaria de los [illegible] tipo Cromagnon, [illegible] cambio que junto a [illegible] ción que ocupa la [illegible] los valles (á partir de [illegible] m.) que es la región [illegible] y soleada, en la [illegible] Montaña, región [illegible] 1.000 metros, con [illegible] trechos y fríos, [illegible] además hasta el siglo [illegible] estaban llenos de [illegible] halla una población [illegible] antiguo, hombres [illegible] al visitante le parecen [illegible] de Neanderthal.